



Ermuan ditugun semaforoen ezaugarri teknikoen deskripzioa

HOJA 1.

Kolore horiz dauden semaforoak

Semaforoak matxuratuta daudelako edo istripua gertatu delako funtzionatzen ez dutenean, baina argi-indarra mantentzen denean, argi horiz jartzen dira eta udaltzainek antolatzen dute pasabidea.

Sarritan ikusten dugu, halaber, eguneko ordu askotan kolore horiz uzten dela Gipuzkoa Etorbidea 30eko semaforoa, auto-pilaketarik egon ez dadin, Gipuzkoa Etorbideko 42 eta 16-18 zenbakien arteko herri barruko bide-zati honetan ibiltzen diren ibilgailu astunak bereziki pilatu ez daitezen, hiru semaforo baitaude espazio labur horretan.

Badakigu semaforo hori argi horiz egotea Gipuzkoa Etorbideko beste aldera bidea gurutzatu nahi duten oinezkoentzat deserosoa dena, baina kontutan izan da pasabide hori ez dela asko erabiltzen, autoa eskuinaldean aparkatuta duten pertsonak soilik, eta sarritan eguna joan eta eguna etorri leku berean aparkatuta egoten diren ibilgailuak direla, gainera 50 metro baino gutxiagora pasabide arautu bat dagoela, bi noranzkoetarako.